

7. Eranskinak.

1. Eranskina: Elkarrizketatuek erantzundako galdera-sorta.

1. Testuingurua

1.1. Datos personales y profesionales .

Titulaciones académicas:

Situación laboral:

Formación en Psicomotricidad:

Año de formación:

Cuantos años como psicomotricista:

1.1. Recorrido: formación.

¿Ha trabajado siempre en educación?

¿Cómo supo que quería dedicarse a la educación?

¿Cuándo y cómo conoció la psicomotricidad?

¿Cuándo decidió que se centraría en la psicomotricidad? ¿Por qué?

Y cómo llegó a la psicomotricidad, en especial a la relacional?

¿Conoce la PPA? ¿Se ha formado en ello?

¿Cuando decidió adentrarse en el mundo de la psicomotricidad cuál fue en un principio su objetivo?

Y a día de hoy, ¿diría que ha cambiado?

2. Experiencias.

2.1.- Psicomotricidad relacional.

¿Qué es para usted la psicomotricidad relacional? ¿Cómo lo definiría?

¿Por qué cree usted que la Práctica Psicomotriz de Aucouturier/La Psicomotricidad Relacional es la adecuada para asegurarnos un desarrollo global del niño/niña?

¿Cuál cree que es la mayor diferencia que encuentra entre la Psicomotricidad Relacional y la Práctica Psicomotriz de Aucouturier?

¿Cuál cree que son las características a tomar en cuenta cuando organizamos una sesión de psicomotricidad relacional en cuanto a la edad de los infantiles?

¿Qué diferencias existen en la organización de la sesión en la PS, en cuanto a la edad de los infantes?

¿Cómo ha sido su experiencia en PS en las distintas etapas de edad infantil? (bebés prematuros, 0-3, 3-6...)

En este sentido, ¿cuál es su opinión acerca de cómo aborda el currículum de Educación Infantil. la psicomotricidad? ¿observa diferencias por etapas?

En la PPA, existe la estructura-temporal, y espacial, que le da cierta forma a las sesiones. En Psicomotricidad relacional, cómo se organiza el tiempo de la sesión?

¿Y el espacio?

¿Y el material?

En una aula de psicomotricidad aparte de los bloques y material para la representación, ¿que tipo de material cree usted que debería de haber?

2.2.- La representación de las vivencias infantiles.

¿Cree usted que se le da la importancia que debe a las representaciones de los alumnos y alumnas? ¿Cómo cree que debería pensar una profesora o un profesor sobre las representaciones de sus niño/as?

Relacionado con lo anterior, ¿ha identificado usted alguna necesidad especial observando las representaciones del infante?

¿Me podría hablar de algún caso en concreto?

Algunos niños y niñas con dificultad de construir su identidad dibujan números para representar imágenes, ¿ha visto usted algún caso? ¿Qué debemos hacer si observamos esta conducta?

¿Es cierto que debemos prestar mayor atención a los dibujos repasados?

En mis prácticas he visto que una vez al mes a los alumnos se les pedía que dibujasen a su familia, para poder tener la representación de la familia. En la sesión de psicomotricidad debemos pedirles que dibujen algo concreto? o les damos libertad absoluta?

Y ¿en sus investigaciones pedía un dibujo en concreto?

2.3.- El rol del psicomotricista.

El rol del psicomotricista es realmente importante, ¿cuál cree que debe ser su actitud hacía el niño o niña?

¿Cuáles son las características que debe de tener un/a psicomotricista de PS?

¿Cuáles cree usted que son las mayores dificultades para un/a psicomotricista? ¿Cómo los ha afrontado usted?

¿Cómo debe de ser el trabajo de un/a psicomotricista en el aula según la edad de los infantes? ¿Cree que hay alguna diferencia?

De 0 a 3 años el niño suele mostrar desconfianza hacia el psicomotricista. Este tiene que propiciar el apego. ¿Cómo cree que conseguiría esto? ¿Jugamos con él?

Es normal que en un principio, más siendo del aula de infantil, se muestren desconfiados hacia la psicomotricista, ¿cómo podemos ir ganándonos su confianza?. ¿Qué podríamos hacer para empezar a crear un vínculo?

Sabemos que nuestro papel no es enseñar movimientos, sino ofrecer ayudas necesarias para su correcto desarrollo. Y para ello debemos darles libertad. Aun así, ¿cree usted que de vez en cuando habría que proponer juegos guiados?

Como educadores los profesores podemos encontrarnos situaciones en las que el niño o niña nos agrede o nos muerde, ¿cómo debemos responder en esos momentos?

¿Y en situaciones de conflicto? ¿Cómo ha solido intervenir en esas situaciones?

¿A la hora de intervenir, cuando se interviene y cuando no en un aula de PS?

¿Cuáles son sus mayores intervenciones?

¿Me podrías contar algún caso concreto en el que haya intervenido y en el que no?

2.4 Necesidades Especiales: Trastorno del Espectro Austista.

¿Ha tenido usted experiencias en Psicomotricidad relacional con niños con TEA?

¿Cómo ha sido la experiencia?

¿Cuáles cree que son los beneficios de la PS en este caso?

¿Cuáles han sido sus dificultades a la hora de trabajar con estos niños?

¿Cuáles han sido sus estrategias?

¿Nos podría hablar de algún caso en concreto?

¿Cómo cree que se debe afrontar estas situaciones en la escuela infantil?

¿Es mejor que lxs niñxs estén con su grupo de clase en psicomotricidad, o hacer un trabajo más individualizado?

Relacionado con lo anterior, los niños en la sesión de psicomotricidad descargan la energía, muchas veces son ruidosos, chillan y hablan alto. Sabemos que a los niños con espectro autista esto les molesta ¿que se debe hacer cuando vemos que le incomoda demasiado?

3. Final de la entrevista.

¿Le gustaría hablar sobre algún aspecto del que no hemos tratado? ¿Quiere usted añadir información?

Me gustaría que me recomendase algún libro o alguna investigación relacionada con la psicomotricidad relacional y su práctica.

2. Eranskina: Elkarrizketatuek sinatutako baimen orria.



Consentimiento informado de los participantes de la investigación

Mediante este acuerdo se pretende informar sobre los objetivos y metodología a las personas que van a colaborar en este Trabajo de Fin de Grado y darles a conocer el rol que van a desempeñar. Muchas gracias por vuestra colaboración en este trabajo de investigación.

La principal responsable de este trabajo es Maite Lasuen Basterretxea, estudiante de 4º de Educación Infantil en la Universidad Pública del País Vasco.

Yo _____, doy mi autorización a Maite Lasuen Basterretxea para realizar esta entrevista para la recogida de datos del Trabajo de Fin de Grado "La Psicomotricidad Relacional y los beneficios de esta metodología con niños y niñas con Trastorno del Espectro Autista".

Antes de rellenar la parte anterior he sido informada de lo siguiente:

- He recibido la invitación para participar y mi aceptación ha sido voluntaria.
- He recibido una copia de esta hoja de acuerdo de aceptación.
- El objetivo principal de esta investigación es el siguiente: Conocer en profundidad la Psicomotricidad Relacional y los beneficios de esta metodología con niños y niñas con Trastorno del Espectro Autista.
- Estos son los objetivos específicos:
 1. Conocer detalladamente la Psicomotricidad Relacional.
 2. Analizar el apoyo que nos ofrece la psicomotricidad teniendo en cuenta la situación de los niños y niñas con necesidades especiales.
 3. Adquirir conocimiento sobre las fortalezas y debilidades de la metodología en la etapa de Educación Infantil.
- La garantía de cumplimiento de los derechos ARCO, según la Ley de Protección de Datos:
 - o Derecho de Acceso.
 - o Derecho de Rectificación.
 - o Derecho de Cancelación.
 - o Derecho de Oposición.



- La información recibida y las conclusiones y respuestas de la entrevista son confidenciales.
- Mis datos personales no se van a utilizar y se mantendrá el anonimato.
- Los datos sólo van a ser utilizados con fines de investigación, en ningún caso serán publicados ni compartidos en ningún foro. Los datos los utilizará la estudiante para su Trabajo de Fin de Grado.
- No he recibido ninguna cantidad económica por participar en esta investigación. Tampoco he tenido que pagar ninguna cantidad económica por participar.
- En caso de tener cualquier duda o pregunta puedo ponerme en contacto con la estudiante:

Maitelasu Basterretxea
Ermitaondo Kalea (48640), Berango (Bizkaia)
Tel. 688668236
E-mail: maitelasu@gmail.com

Nombre y firma del participante

Nombre y firma del informante

Fecha y lugar: _____

3. Eranskina: Tenerifeko La Lagunako Unibertsitateko Psikomotrizitate zerbitzuko zentruko saioaren behaketa. Ametsen kasua.

Data: 2022/12/14	Lekua: ULLko Psikomotrizitate zerbitzuko zentruko gela handia
Haurraren ezizena: Amets	Adina: 3 urte
Haurraren deskribapena	
<p>Ez du ahozko hizkuntza gutziz garatu baina hitz solteak esateko gai da. Autonomia mailari dagokionez oraintxe hasi da esfinterra kontrolatzen eta Haur Hezkuntzako 3 urteko ohiko gelan dago La Lagunako eskola publikoan.</p> <p>Jarrera errepikakorra du eta objektuak behin eta berriz airera jaurtitzea bere jarduera gogokoetako bat da. Ispiluarekiko fijazioa du eta ondorioz, saioa hasi baino lehen Mirenek ispilua oihal batekin estali du. Psikomotrizistak Amets irribarretsu bizi dela esan dit eta hau ere estereotipia bat dela dio. Askotan besteen kontaktua saihesten du. Honen aurrean, Mirenen hitzetan, bere alboan gaudela transmititu, bere beharrak identifikatu, saihesten gaituen ikusi eta bere arreta bereganatzen saiatu behar gara. Bere beharrak ezagututa psikomotrizitate gela estrukturatu behar da: objektuak jaurtitzea gustuko duenez bloke gehiago atera ditu, helduaren kontaktuari uko egiten dionez pelutxeak jarri ditu “psikomotrizistaren etxean”. Heldua bere jolasean sartzeko, imitazioa erabili behar da. Hezitzailea jolasean integratuta baldin badago, haurrak jarrera errepikakorra duena ikusterakoan jarduera proposamenak egin ahal dizkio. Era honetan haurra bere bukletik atera daiteke.</p> <p>Ametsak, AENdun haur ugari ez bezala, jolas sinbolikoan aritzeko gaitasuna du. Saioan blokeen gainean jarri eta zaldi gainean egongo balitz bezala jokatu du. Blokeekin dorre bat sortu du ere eta honek bertikaltasuna lortzea ahalbidetzen dio.</p>	
Saioa	
<p>Haurrak saioaren hasierako errutina ezagutzen du. Gelara sartu baino lehen hezitzailearen laguntzari esker zapatak kendu eta harrera gelako eserlekuan utzi ditu. Psikomotrizistak “zapatak kendu ditugu, orain barrura sartuko gara” esan eta Amets bere kabuz sartu da barrura. Mirenek bien burua aurkeztu du “Ni Miren naiz, zu Amets zara”. Pare bat aldiz esan dio bere izena, umeak bere buruaz kontzientzia hartzeko garrantzitsua baita. Helduak 1,2 eta 3 esan du eta umea hitz hauek errepikatzen saiatu da. Hiru aldiz gehiago saiatu da eta ostean zuzenean koltxonetatik salto egitera joan da. Salto egin eta lurreratzen zen bakoitzean barre egin eta pare bat txalo ematen zituen. Bost aldiz errepikatu du jarduera hau. Seigarrenean Mireni begiratu dio eta Mirenek elkarrekin jolastera gonbidatu diola sentitu du. Hori horrela, elkarri eskua eman eta batera salto egin dute. Berak haurra imitatu du eta Mirenen aburuz, elkarren arteko lotura estua sortzeko estrategia da dau. Ostean haurrak berriro burutu du jarduera berbera baina oraingoan helduak bere jarduera eten eta airean hartu du.</p> <p>Airean kulunkatu du pare bat aldiz baina Ametsak kontaktua saihestu eta lurrera joateko nahia adierazi du eta orduan Mirenek haurra lurrean utzi eta koltxonetatik herrestatu du. Haurra pozik eta gora begira geratu da hezitzaileak oinetatik oratuta koltxonetan zehar mugitzen zuen bitartean.</p> <p>Mirenek haurra besoetan hartu du berriz, “1,2 eta 3” esan eta koltxonetara jaurti du. Haurrak barrezka berriro nahi zuela adierazi dio besoak luzatuz. Pare bat aldiz burutu dute jarduera hau. Azken batean, Mirenek Amets lurrean utzi eta koltxonetan buruz behera jarrita zegoela, eskua bizkarrean jarri dio. Estrategia hau baliagarria da haurrak kontentzioa edo eustea behar duela nabaritzean. Lurrean dagoela, psikomotrizistak koltxonetaren izkinak hartu eta umea</p>	

koltxonetan bildu du. Haurra lasai geratu da eta ostean korrika eskailera itxurako goma aparreko bloke handi batera igo da. Hortik salto egin, barre egin eta txaloka hasi da. Jarduera hau pare bat aldiz errepikatu du. Hezitzaileak, umea bukletik atera nahian, airean hartu eta kanta-marmarrean hasi da. Lurrean utzi eta Amets berriz ere salto egitera joan da baina oraingoan koltxoneta gabeko lurrera salto egitera joan da eta orduan, hezitzaileak umea gelditu eta horra salto egin ezkerko mina hartuko duela esan dio. Ekintza honekin helduak haurraren babes eta ongizatea bermatu behar duela ikusi ahal izan da.

Ostean, umea salto egiten zegoela, helduak zilindro formako blokea hartu eta haurra barruan sartu du. Bera beldurra adierazteko garrasika jarri da. “Ulertuta, ez duzu hau gustuko” esan dio Mirenek. Eskutik oratu eta tonu lasaian “sartuko zara?” esan dio. Oraingoan barrura sartu da eta barruan uzurtuta geratu da. Saio ostean Mireneri estrategia honen zergatia galdetu diot eta berak haurrak kontentzioa behar zuela esan dit eta munduarekin alderatuz haurra non dagoen ikasteko baliagarria dela adierazi dit.

Amets eskailera itxurako blokeak bueltatu da. Helduak Amets jarduera errepikakorrean sartuko zela jakin eta bere arreta deitu du pilota hartuz eta “psikomotrizistaren etxea”-n utziz. Haurra arin batean etorri eta pilota hankaz jaurti du. Birritan eman eta karratu itxurko blokeak ikusi dituenean hauekin dorre bat egiteari ekin dio. Dorrea eraiki bezain laister bota du. Dorrea apurtzen zuen bakoitzean barrezka jarri eta jarduera errepikatzen zuen. Heldua beregana hurreratu eta dorre handiago bat egiten lagundu dio, elkarrekin jolasten hasiz. Denboda bat igaro ondoren, hezitzaileak dorreak lurrean lerrotatuta utzi ditu, haurrari gainetik pasatzeko adieraziz. Blokeetatik igarotzen zen bitartean helduak blokeen koloreak esan ditu eta umeak ere koloreen izenak esango balitu bezalako soinuak atera ditu. Honetara jolasten ibili dira denbora tarte batez.

Azkenik, hezitzaileak “Amets musika jarriko dugu” esan, eskua luzatu eta elkarrekin musika piztera joan dira. Mirenek “musika, atsedena, argiak itzali, etxetxo” hitzak birritan errepikatu dizkio. Musika lasaia jarritz, argiak itzaliz eta “psikomotrizistaren etxea”-n gora begira itzunduz, une goxo bat izan dute. Umeak besoak luzatu ditu eta helduak eskuko atzamarrak kontatu dizkio. Begira geratu eta helduaren eskua hartu du, “1,2,3, 4 eta 5” zenbakiak esango balitu bezala jokatu.

Lasaitasun momentu horretan denbora gutxi egon dira, Amets arin aspertu baita. Izan ere, “Agur” esan dio helduari eta Mirenek umeak saioa bukatutzat eman duela ulertu du. Azken honek haurrak saioa denbora ezastruktura ulertzen duela adierazten du, lasaitasun denbora tarte eta gero saioa bukatzen dela baita.

Psikomotrizitate gela



4. Eranskina: Tenerifeko La Lagunako Unibertsitateko Piskomotrizitate zerbitzuko zentruko saioaren behaketa. Liherrren kasua.

Data: 2023/01/18	Lekua: ULLko Piskomotrizitate zerbitzuko zentruko gela txikia
Haurraren ezizena: Liherr	Adina: 4 urte
Haurraren deskribapena	
<p>15 hilabete zituenerarte ez zuten inolako portaera estereotipaturik behatu baina hortik aurrera ohartu ziren bere izena esaterakoan begiratzan ez zuela eta besteekin jolasteko gai ez zela. 2-3 urte zituenean eta ahozko hizkuntza garatzeko gai ez zela ikustean, larritzen hasi ziren. Orduetik, keinuen bitartezko komunikazioan aurrerapenak egitea lortu dute baina ez die helduei begirada mantentzen.</p> <p>Jarrera agresiboa erakusteko ohitura du. Izan ere, normalean kasketak hartzen eta helduari kosk egiten dio. Piskomotrizitate saioak hasi zituenean, gaiaeretara igotzeko ohitura zuen. Horrez gain, apalategietako objektuak botatzen zituen. Orduetik, limiteak jartzen dizkiote “ezin zara horra gora igo” edo “ez bota apalategiko objektuak”. Badirudi edonora igotzea debekatuta dagoela ikasi duela baina oraindik apalategiko gauzak botatzen jarraitzen du eta ondorioz, Mirenek, saioa hasi baino lehen leku hauek hustu ditu.</p> <p>Musika entzutea gustuko du eta aurreko urtean musikarenganako fijazioa zuen. Muiska entzuterakoan gelako ispiluaren aurrean jarri eta dantzaka hasten zen. Gainera, behin eta berriz, keinuekin musika eskatzen zuen eta jartzen ez ziotenean karrasketak hartzen zituen. Pilotenganako fijazioa izan zuen ere, eta ondorioz, gelan ez da inolako baloirik egon.</p>	
Saioa	
<p>Gelara sartu bezain laister “psikomotrizistaren etxea”ren txokotxoan eseri dira. Mirenek bien burua aurkeztu du “Ni Miren naiz eta zu Liherr”. Ostean, elkarren aurrean jesarrira zeudela, atzamarrarekin seinalatu eta “Zu Liherr” esan dio pare bat aldiz. Liherrrek atea egiratu eta besoa aterantz luzatu du. “Hemen jolastuko dugu” esan dio Mirenek eta “bero egiten du, jertsea kenduko dizut” esan dio. Mirenen ohiko estrategia bat “psikomotrizistaren etxea”n egiten dituzten ekintzak deskribatzea da. Bere ustez, garrantzitsua da haurraren ekintzei izenak ematen hastea, haurrak bere buruaren eta mugimenduen kontzia hartzen hasteko.</p> <p>Ondoren, koltxonetara joan dira eta arrapatatik botatzera jolastu dute. Liherr arrapalan itzunduta jarri eta Mirenek oinetatik oratuz arrastatzen zuen. Pare bat aldiz errepikatu dute ekintza eta Liherr barrezka jarri da. Laister aspertu egin da eta atea begira geratu da. Ostean, botila batetik ura edango balu bezalako keinua egin du eta helduak “Liherr orain ez da ura edateko momentua” esan dio. Badirudi, Liherrrek askotan egiten duela eta gelatik ihes egiteko estrategia bat besterik ez dela.</p> <p>Saio osoan zehar, Liherrrek gelatik kanpo joateko nahia adierazten zuen, atea zabaltzen saiatuz eta ohiekin. Hori horrela, helduak bere arreta bereganatzeko estrategiak pentsatu behar izan ditu. Batetik, textura ezberdineko oihalak hartu eta astindu ditu. Honi esker, umea oihal handi baten ganean jarri eta helduak arrastaka eraman du. Noizbehinka Mirenen eskua hartzen zuen baina arin batean askatzen zuen. Honek helduarekin egon nahi duela eta kontentzioa bilatzen duela adierazten du baina ez da kontaktua luzaroan mantentzeko gai. Gainera, oihal baten behelaldean sartu da eta ekintza hau ere bere kontentzio behararen adierazle da.</p> <p>Helduak haurraren arreta deitzeko erabili duen beste teknikaren bat sokak erabiltzearena izan da. Mirenek alde batetik oratu du, Liherrrek sokaren beste punta hartu duen bitartean. Material hau oso baliagarria da heldu eta haurraren arteko lotura sortzeko. Ostean, psikomotrizistak</p>	

korda umearen gorputzaren inguruan jarri du. Hasiera batean Liher geldi- geldi harrituta geratu da, baina arin batean garrasika ez zaiola gustatu adierazi eta Mirenek korda kentzen lagundu dio. Hala ere, sokarekin jolasean jarraitu dute. Korda koltxoneta baten inguruan jarri, Liher gainean jesarri eta gelatik herrestan eraman du.

Saio osoan zehar haserretzen zen bakoitzean edo helduari kosk egiten saiatzen zenean, Mirenek bere sentimenduei izena jartzeko asmoz “ Liher haserre dago” edo “Liher trsite dago” esaten zuen. Horrez gain, limiteak jarri dizkio “horrela min egiten didazu eta ez zait gustatzen” esanez eta haurrarendik aldentuz. Horrez gain, haserrea askatzeko bere espazioa utzi eta Liherren haserrealdia baretzeko asmoz helduak beste jarduera bat hasten zuen, bere arreta deitzeko. Liherrek Miren bakarrik jolasten ikusi duen bakoitzean hurreratu egin da.

Ildo beretik, orokorrean, saioko denbora guztian Mirenek haurraren arreta deitzearen estrategia erabili behar izan du eta berak esandakoaren arabera ezin izan du emozionalki gustatu izan litzaiokeen beste konektatu, oso aztoratuta nabari baitu umea. Hala ere, lasaitzeko ordua iritsi denean, musika jarri eta umea “psikomotrizistaren etxera” hurbildu da, denbora estruktura ezagutzen duelarik.

Oraingo honetan ere Mirenek gutxitan erabili du ahozko hizkuntza, Ametsen saioan bezala. Hala ere, aipatzekoa da ere, Ametsek ez bezala, Liherrek amaieran, egurrezko eraikuntza bat egin duela.

Psikomotrizitate gela



5. Eranskina: Kasu espezifikoaren behaketa orri erdua. Kimetsen kasua.

Aipatu beharra dago hurrengo behaketa-taula osatzeko, “Manual Diagnóstico y Estadístico de los Trastornos Mentales (DSM-5)”-en batzen diren irizpideak erabili direla (Morrison, 2015).

Data:	Ordua:	Lekua:
Iraupena:		
Haurra objektuekin harremanetan:		
Portaera	Bai	Ez
Objektuak begiratzen ditu		
Objektuekiko interesa erakusten du		
Objektuen aspektu zehatzekiko (kolorea, forma, tamaina...) interesa erakusten du		
Era estereotipatuan erabiltzen du (hartu eta bota, bueltak eman...)		
Objektuaren helburua ulertzen du eta jolasteko erabiltzen du		
Objektu anitzak erabiltzen ditu		
Objektu bat hartu eta denbora osoan berarekin jolastu du		
Oharrak:		
Haurra espazioarekin harremanean:		
Portaera	Bai	Ez
Gelatik helburu batekin ibiltzen da		
Aurrera eta atzera ibiltzen da gela osotik		
Leku berean geratzen da		

Babesa transmititzen dioten lekuetan geratzen da		
Besteekin gela partekatzen du		
Ispiluan fijazioa erakusten du		
Lurrean etzan eta gora begira geratzen da		
Leku garaiak aukeratzen ditu		
Helduarekiko urrun kokatzen da		
Atearen eta leihoaren gertu kokatzen da		
Deskantsatzeko lekura hurbiltzen da		
Oharrak:		
Haurra denborarekin harremanean:		
Portaera	Bai	Ez
Saioaren denbora-faseak ulertzen ditu		
Irakasleak agindu arte itxaroten du		
Jolas sensoriomotorrean aritzen da		
Saioan zehar ekintza ezberdinak burutzen ditu		
Ekintzan eta denboran gelditzeko gaitasuna erakusten du		
Deskantsatzeko momentua dagoela ulertzen du		
Oharrak:		
Haurra eta mugimendua:		
Portaera	Bai	Ez
Arreta ekintza ezberdinetan		

mantentzen du		
Jolas presinbolikoetan aritzen da		
Jolas sinbolikoan aritzen da		
Jarrera errepikakorrak erakusten ditu		
Materialak era irudimentsuan erabiltzen ditu		
Errepresentazioa burutzen du (plastilina, blokeak, egurrezko eraikuntzak...)		
Baldartasun motorra erakusten du		
Iniziatiba erakusten du		
Erritmo motor altua du		
Salto egiten du		
Oihalekin estaltzen da		
Arropak kentzeko ohitura du		
Agresibitatea erakusten du		
Motrizitate finean gaitasuna erakusten du		
Zapatak bere kabuz kendu eta jartzen ditu		
Oharrak:		
Haurra ikaskideekiko harremanetan:		
Portaera	Bai	Ez
Ikaskideekin erlazionatzen da		
Ikaskideekin komunikatzen da		

Ikaskideekin jolasten du		
Ikaskideekiko interesa erakusten du		
Ikaskideen produkzioekiko interesa erakusten du	-	
Ikaskideen asmoak ulertzen ditu		
Ikaskideen aginduak ulertzen ditu		
Ikaskideen keinuak/jolasak imitatzen ditu		
Ikaskideen presentziaz ohartzen da		
Ikaskideak begiratzen ditu		
Oharrak:		
Haurra eta heldua:		
Portaera	Bai	Ez
Helduaren presentziaz jabetzen da		
Heldua begietara begiratzen du		
Helduarekin komunikatzeko nahia adierazten du		
Helduaren aginduak betetzen ditu		
Oharrak:		